

Herritarren Zerbitzuari dagozkion funtzioen esleipena Oñatiko Udaleko hainbat langilerengan

Oñatiko Udalak, Herritarrentzako Arreta Zerbitzua ezartzeko prozesua martxan jarri zuen uztailan eta jada onartuak izan dira prozeduren eskuliburua eta zerbitzua arautuko duen ordenantza. Araudia indarrean sartu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero (2018ko urriaren 19an), behin legeak aurreikusitako prozedurazko izapide guztiak betetakoan.

Zerbitzu hau herritarrak eta Udalaren arteko harremanetan erreferentziazko elementu izateko asmoz sortu da eta bertan eskainiko dira, modu integralean, parte-hartze tekniko espezialdun bat behar ez duten udal zerbitzu gehienak.

Bere aplikazioaren erabateko eraginkortasunerako ezinbestekoa izango da aurrez Oñatiko Udalak baliabide pertsonal, material eta teknologikoak esleitzeko beharrezkoa den barne antolaketa prozesua egitea.

Beraz, udal zerbitzu berri hau ezartzeko hainbat osagaien definizioan aldi berean jarraitu beharra dago, eta modu berean, udal antolaketarekin lotu beharra dago. Izan ere, bertan finkatuko dira gaur egun beste lanpostu edo sail batzuetan banatuta dauden egitekoak. Horrek azterketa eta hausnarketa integral bat egitea eskatuko du, eta bere ondorio edo eraginak herritarrentzako arreta zerbitzuaz harago beste lanpostu batzuetara ere zabalduko dira.

2018ko irailaren 20ko Alkate dekretu bidez onartutako Memorian jasota dago zerbitzu berriari arituko diren giza baliabideak finkatzeko proposatutako prozedura, non atal bakoitzak ondorengoko pausoen norabidea eta zentzua baldintzatzen duela aurreikusi zen. Bertan adierazten den moduan, EUDELe gomendaturiko ratioak eta Oñatiko herriak duen biztanle kopurua kontuan izanik, hiru lanpostu beharko lirakeela kontsideratzen da, beti ere baliabide gehiago behar izatea ekartzen duten, oporrak, aldi baterako absentziak, eta abar izango direla jakinik. Lanpostu horiek Udaletxeko beheko solairuan egokituko den bulego berezian kokatuko dira. Lanpostu horiek Administrazio Orokorreko eskala, eta Azpieskala administratiboa duten funtzionario bidez beteko dira.

Memoria horretan, lanpostu horietako batek koordinazio lanak eta beste sailekiko harremanetan erreferentea izango dela aurreikusi zen, baina zerbitzua abian jarri eta izapide guztiak modu normalizatuan egikaritzeak suposatzen duen jarduna kontuan izanda, arreta zuzena emango duten 3 ADMINISTRARI horietaz gain beste bat izendatuko da modu berezian HAZeko KOORDINAZIO LANAK egingo dituen beste Administrari bat izendatuko da.

Aipatutako memorian jasotako prozedurari jarraiki, HAZeko lanpostuen egitekoak definitu ziren, baita gaur egungo langileekin betetzera bideratutako aurretzeko kontsulta bat zabaldu ere (2018.09.20ko Alkate Dekretua) eta ezarritako epean inork ez zuela azaldu bertara joateko borondaterik.

Hurrengo pausoa, eragina izango duten lanpostuen eta beraien egitekoen antolakuntzaren inguruko azken erabakia hartzea izan beharko zukeen.

Baina, esanda bezala, karrerako funtzionarioekin lanpostu horiek behin betiko izaeraz betetzeko aukera bertan behera geratu da. HAZeko agenteen eginkizunak aldi baterako esleituko zaizkien funtzionarioak hautatzeko borondatezko prozesua bideratu ondoren, ez da nahikoa langile aurkeztu zerbitzuaren beharrei erantzuteko; premiazko eta atzerazineko egoera sortu da, zerbitzua berehala jarriko baita martxan.

Udaletxean HAZ zerbitzua ezartzeko obrak esleitzeko prozedura abian da eta abenduan egitea aurreikusten da gehien jota martxoan ireki nahi delako zerbitzua. Hori horrela izanik, HAZ zerbitzuan eskainiko diren arreta eta izapideak abian jarri eta modu eraginkorrean finkatu behar dira, baita ere beharrezkoa delarik lehenbailehen funtzioak langileei esleitzea, zerbitzua ezarritako epean ireki ahal izateko. Beraz, oso denbora-tarte laburra dago lanpostuak behin betiko betetzeko edozein prozedura gauzatzeko.

Bestalde, behin betiko antolakuntza, funtzioen banaketa eta lanpostuen definizioa Herritarren Arretarako Zerbitzua martxan jarri eta epe ertain batean egingo da. Ez dakigu zenbat herritarrek erabiliko duten HAZ zerbitzua, jarriko diren baliabide informatikoen erabilpena modu erosoan barneratuko den ala ez, eta HAZ eta sailen arteko funtzionamendua modu koordinatu eta egokian gertatuko den. Adierazle desberdinek emandako Informazioa oso baliagarria izango da zerbitzuaren hastapena eta bere behin betiko antolaketa planifikatzeko. Bestalde, langileei esleitu beharreko eginkizunak egun ez daude lanpostu jakin bati atxikiak; hainbat lanpostu eta sailetan banatuta daude.

Herritarrei arreta eraginkortasunez emateko asmoz, behin langileei funtzioak esleitu ondoren, prestakuntza/formazioa eskaini behar zaie egiteko berrien inguruan, eta prozesu hori hainbat astetan zehar luzatuko da.

Horregatik guztiagatik, ezohiko egoera batean gaude, eta premia eta behin-behinekotasun arrazoiengatik, lanpostu horien eginkizunak zerbitzu-eginkizunen bidez egin daitezke, eginkizunak behin-behinekoz esleituz (Madrilgo Justizi Auzitegi Nagusiaren 2016ko urriaren 26ko 550/2016 sententzia). Enplegatu publikoek bere lanpostuaren funtzioak egikaritzeko eskubidea dute berez, baina kasu honetan salbuespen baten aurrean gaude, non beste funtzio batzuk ere egotziko zaizkion, bere lanpostuari ez dagozkionak. (1997ko ekainaren 30eko Auzitegi Gorenaren sententzia). Hori egin ahal izateko, salbuespen hori arrazoitu egin behar da, eta gure kasuan arrazoa ez ohizko egoera batean egotearena da. Hartara, HAZ martxan jar liteke, hainbat langileri zerbitzuaren funtzioak behin-behinekoz esleituz; behin zerbitzuaren benetako beharrak egiaztatu ondoren, lanpostuak sortuko dira eta behin betiko izaeraz hornituko dira, egoki iritzitako bitartekoaren bidez.

Pertsonal Batzordeak txostena egin du honako hauek kontuan hartuta:

- 1.- Administrazioak zerbitzuak modu eraginkor eta efizientean eskaini ahal izateko bere antolaketa eta funtzionamenduaren inguruko erabakiak hartzeko eskumen osoa duela. (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenaren 69. Artikulua).
- 2.- Udalak Prozeduren eskuliburua eta HAZa arautzeko udal ordenantza onartuak eta iragarriak dituela eta HAZ zerbitzua ezartzeko izaera desberdineko baliabideak eskuratu eta antolatzen ari dela.
- 3.- Ez ohizko eta premiazkoa egoera batean gaudela, eta zerbitzua aurreikusitako datarako martxan jartzea ahalbidetzeko ahalegin berezia egin behar dela.
- 4.- Langileen borondatez betetzeko aukerarik ez dagoen premiazko eginkizunak badirela, eta Urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 48. artikulua jasotzen duen moduan, udalak derrigorrezko zerbitzu-eginkizunak izendatu ditzakeela.
- 5.- Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 54. artikuluan eta 190/2004 Dekretuaren 50. artikuluan funtzionarioak zerbitzu-aldian izenda daitezkeela atxikitako lanpostuaren berariazkoek bestelako egitekoak burutzeko ere.
- 6.- 5/2015 Legearen 73.2 eta 364/1997 Errege Dekretuak funtzioak esleitzeko aukera jasotzen dute eta ez dute zehazten karrerako funtzionarioei soilik aplikatu litekeenik baizik eta "enplegatu publikoak" aipatzen ditu; beraz, legeak ez du oztopatzen bitarteko funtzionarioei ere funtzioak behin-behineko izaeraz esleitzea.
- 7.- Bitarteko funtzionarioei behin-behineko izaeraz aipatutako lanpostuak esleitzeko arrazoiak:

.- HAZ bitartez tramitatuko diren espedientei dagokienez, honako hiru Departamendu hauetan izango du bereziki eragina: Idazkaritza, Kontu-hartzailletza eta Hirigintza.

.- Karrerako funtzionarioei eskaini arren, inork ez du interesik agertu lanpostu horietan.

.- HAZeko lanpostuak oraindik ez daude jasota RPTan.

.- 39/2015 eta 40/2015 Legeek HAZ zerbitzuak herritarrei eskaintzea agintzen diete Udalei, hau da, herritarrentzako zerbitzu integrala eta modu eroso batean eskainiko zaiena.

.- Aurreko betebeharrari lotuta Oñatiko Udaleko Gobernu taldeak, proiektua estrategikotzat jo du eta martxoan ireki nahi da, alde aurretik udal tramiteen eskuliburua prestatu eta onartu da, HAZ zerbitzua arautuko duen Udal arautegia onartu da eta HAZa prestatzeko obrak lizitaziora atera dira. Gauzak horrela ez dago behar beste denbora lanpostuak oposizio baten bidez betetzeko.

.- HAZak bere gain hartuko dituen funtzioak kontuan hartuta, egungo lanpostu administratiboetan, karrerako zein bitartekoen kasutan, aldaketak eragingo ditu.

.- Karrerako funtzionarioei hasieran egin zitzaien eskaintzan inork onartu ez zuen arren HAZera pasatzea, ondoren karrerako bi funtzionariok onartu dute HAZera joatea, bat Kontu-hartzailletzakoa da eta bestea Idazkaritzakoa. Azken hori, duen ezagutzagatik, egokia izan daiteke HAZeko arduradun-funtzioa bere gain hartzeko. Ondorioz, beste bi administratibo beharko lirateke HAZeko bulegoa osatzeko, bata Hirigintzakoa eta bestea Idazkaritzakoa. Hirigintzan bi administratibo daude bata karrerakoa eta bestea bitartekoa. Bitartekoa Oñatikoa da eta herria eta herritarrak ezagutzen ditu eta bi ezaugarri hauek izatea garrantzitsutzat jo da HAZ zerbitzurako. Idazkaritzan, 3 administrari daude, hirurak bitartekoak, baina hiruretatik bakarra da Oñatikoa. Gainera zerbitzuan arituko diren langileen izaera ere garrantzitsua da, hurbiltasunezko eta kalitatezko zerbitzu bat eskaintzeko eta bitarteko bi langile horiek ere duten izaeragatik aproposak izan daitezke horretarako.

8.-2018ko Urriaren 31ko HAZ zerbitzua sortu eta ezartzearen inguruan egindako txosten teknikoan honako PROPOSAMENA egiten da: Legeak ematen duen aukera baliatuz, lanpostu bati berariaz atxiki ez zaizkion zereginak aldi baterako izaeraz Udalak bere langilegari zerbitzu-eginkizunetan esleitzea.

Gaia aztertu ondoren eta Pertsonal eta Barne Antolamendu Batzordearen irizpena aldekoa dela kontuan hartuz, Udal Plenoak gehiengoz –13 boto alde (EH Bildu eta EAJ) eta abstentzio bakarra (alkatea)– honako erabakiak hartu ditu:

Lehena: HAZeko koordinazio lanetarako, BLANCA OLALDE -Idazkaritzako administraria-zerbitzu eginkizunetan izendatzea, lanpostu bati berariaz atxiki ez zaizkionean alegia, laburbilduz, honakoetarako:

- Salletatik Herritarren Arreta Zerbitzura (HAZ) iritsi behar duen informazioa kudeatu eta koordinatzea.
- Prozeduren berrikusketa proposatu eta prozedura berriei buruzko irizpena ematea.
- Informazioko Datu basearen eguneroko mantentze-lanak zuzendu eta koordinatzea.
- Tramitatzaileekin zailtasunak suertatzen direnean, dagokion erabakiak hartzea; egoera berezia duen tramite jakin bat nola konpondu erabakitzea, betiere araudiaren baitan.
- Ohiko jardunean tramitatzailearen eta herritarraren artean suertatzen diren gatazkak konpontzea. Arreta zuzena ematea HAZaren jarduerarekin, baldintzekin edo beste konturen batekin ados ez dagoen herritarrari.
- Herritarren Arreta Zerbitzuko (HAZ) langile guztien lana zuzentzea eta koordinatzea.
- Langileen oporrak planifikatzea, ordezkapenak eta egutegiaren inguruko bestelakoak antolatzea.

- Langileen lana kontrolatzea eta gainbegiratzea. Jardunak edo jarrerak zuzentzea;
- Zerbitzuaren beharren eta langileen gaitasunen arabera mahaiko lanak eta atzeko lanak esleitzea.
- Langile berrien prestakuntza.
- Estatistika datuak prestatzea, zerbitzuaren beharrak jasotzea, etab.
- Mahaiko lana; espedienteak, eskaerak, eta abar tramitatzea. Tramitatzaile baten funtzioak burutzen jakitea, Zerbitzuan beharra dagoenean haren lekuan jarduteko.

Bigarrena: Administrari izaerako lanetarako, ALAZNE ZUMALDE, JAIONE UGARTE eta MAIALEN URZELAI zerbitzu eginkizunetan izendatzea, lanpostu bati berariaz atxiki ez zaizkionean alegia, laburbilduz, honakoetarako:

- HAZera bide desberdinetatik jotzen duten herritarrei arreta ematea, informazioa ematea eta izapide desberdinen inguruan aholku eta laguntza ematea.
- Udalaren aurrean aurkeztutako eskaerak eta agiriak erregistratu eta eskaneatzea eta dagokin moduan bideratzea.
- Zergadunen aurrean dagozkien izapideak egitea
- Zerbitzuaren kudeaketa eta izapidetze administratibo funtzioak egitea.
- Jasotzen diren kontsulta, eskaera eta kexa eta iradokizunak bideratzea.
- Udalaren zerbitzu telematikoekin lotutako alta eta aldaketen inguruko izapideak egitea.
- Dagokionean, agiriak konpultsatzea.
- Saileko arduradunarekin batera udaleko iragarki taularen kudeaketa.
- Erabiltzen diren datu baseetan dagozkion aldaketak, konprobazio eta eguneraketak egitea.
- HAZaren funtzionamenduari lotutako estatistika edo memoriak egitea.

Hirugarrena: Izendaturiko funtzionarioek egungo lanpostua gordeta izango dute, EFP 6/1989 legearen 54. artikulua jasotzen duenaren arabera.

Laugarrena: Izendapen hauek gehienez ere bi urteko iraupena dute baina bi urteko luzapena onar liteke. (190/2004 LegEDren 50.art.) Aldi baterako izaera dute eta amaituko dira beren sorrera ekarri zuten premia edo beharra desagertu dela jotzen bada.

Bosgarrena: funtzio hauek egiten hasiko dira HAZ zerbitzua ezartzen denean, baina aurretik, horretarako beharrezkoa den formazioa eskainiko zaie, baita udaleko beste administrariei ere.

Seigarrena: HAZeko langileen oporrak eta bestelako absentziak, modu koordinatu eta orekatuan antolatuko dira zerbitzuaren funtzionamendua bermatze aldera. Ezinbesteko kasuetan eta zerbitzuaren behar konkretuei erantzun ahal izateko, beste administrariek ere funtzio horiek egin ahal izango dituzte.

Zazpigarrena: HAZ zerbitzu berria ezartzeak udalaren antolakuntzan izango dituen eraginak neurtu eta beste sailetan ere dagozkion egokitzapen eta berrantolaketak egingo dira.